

## BELDURRA DESARMATZEN

DENBORA: 4 ESKOLA-ORDU

### JARDUERAK

#### 1 Bortizkeriaren kultura: Bortizkeria hedabideetan

**Helburua:** Hedabideetan neurritz kanpo azaltzen den bortizkeriaz jabetzea.

**Deskripzioa:** Ikasleak hiru taldetan banatuko ditugu (gaiak batzeko, baina abiatu norberak egingo duen gogoetatik abiatuko gara). Taldekide bakoitzak lehen orriko plantila hartuko du: lehen taldekoek bideo-jokoak eta bideo-klipak banatuko dituzte, bigarrenekoek telebistako filmak eta marrazki bizidunak, eta hirugarrenekoek telebista eta prentsako albisteak. Talde bakoitzak bost minutu kronometratu izango ditu ezagutzen dituen film, bideo-joko, eta abarren izenak idazteko (ideia-jasa). Bost minutuak agortuta, taldekideek erabaki behar dute aipatutako materialean bortizkeria dagoen (ideiatan edo jarreratan) ala ez; gero, ehunekoak kalkulatu eta jarduerako fitxa osatuko dute. Behin fitxa osatuta, galderak komentatuko dira gelakide guztien artean.

**Orientabideak:** Jarduerari buruzko gogoeta norberak bakarrik egin beharko du hasieran. Galderei erantzun ondoren, denen aurrean emango dira erantzunak, eztabaida egitera animatzeko. Ondoko datu hau lagungarri suerta daiteke gogoeta egiteko: adituek diotenez, haur batek bizitzan zehar 20.000 heriotza bortitzak ikusi ahal ditu telebistan.

#### 2 Etsaiaren irudia: Beldurrezko estatuak

**Helburua:** Gerrak eta mesfidantzak, besteekiko beldur eta aurreiritziekin lotzea.

**Deskripzioa:** Ikaskideei eskatuko zaie testuinguru bat aukeratzea (ez halabeharrez armatua), non bi aurkako talde agertzen diren (Athletic-Errreal, AEB-Irak, gizonak-emakumeak, Israel-Palestina...); ikaskideak bi taldetan banatu eta bakoitzak aipatutako talde horietako bat izango da. Talde bakoitzak bi irudi estatiko antzetzuko ditu: lehenengoa, nola ikusten duten euren burua, eta bigarrena nola ikusten duten beste taldeko kideak. Talde bakoitzari eskatuko zaio, gainera, estatua kolektiboak antzetztean (gutxienez 30 segundo mantendu behar dira geldi), taldekide batek azal dezala zer antzetzu nahi izan duen taldeak.

**Orientabideak:** Antzezpen hau egiteko ez dago arau finkorik, baina talde osoak parte hartu behar du eta estatuak finkoak izango dira (ez dute mugitu behar). Kideak asko badira, zatitu taldea eta parte bakoitzak irudi bat egin dezala. Estatuak pertsonak edo gauzak oreka ditzakete, eta karikaturak izan daitezke. Komenigarria da hamar bat minutu ematea, taldekideak ados jarri daitezen. Lau irudiak errepresentatu ondoren, agertu diren elementu komunak idatzi eta taula beteko da. Ondorio bat atera beharko litzateke, hots, denok garelako desberdinak, baina horregatik ez dugula zertan mehatxatuta sentitu. Ariketa, gatazka armatuekin alderatu daiteke: Zer gertatzen da gatazka armatuetan?, Eman al dezakegu adibideren bat non diferentzetat hartutako jendea gerra egiteko aitzakia modura azaldu den?

#### 3 Arma arinak: Ibilbide luzea

**Helburua:** arma arinek duten iraupenaz, arma horien merkatuaz eta erabileraz jabetzea.

**Deskripzioa:** bosteko taldeak egingo dira, arma arin bati buruzko koadroak hartu eta kronologikoki ordenatzea eskatuko zaie ikasleei. Ondoren, mapa batean marraztuko da arma horren ibilbidea. Glosategia eta galdera batzuk sartzeko pentsatuta daude, gogoeta egin aldera.

ADI: fotokopiatu egin behar da armen ibilbideari buruzko koadroak dituen orria.

**Orientabideak:** EBko Portaera-kodea egin izanak erausten du, armak ez direla beste edozein produktu, eta mugatu egin behar dela armen erabilera.

Hiru aldeko armen salmentak eta saltzaile ilegalak egoteak adierazten du ezen Portaera-kodearen arabera herri batzuk armak esportatu ezin duten arren, armak iritsi daitezkeela herri horietara, merkatuko ohitura hain estuak ez dituzten beste herrialde batzuen bitartez, hiru aldeko merkaturak praktikatu: horrela saihesten da Portaera-kodearen araua.

Beste gai bat da, zergatik arma arin baten bizi-iraupena ez den amaitzen lehen pertsona hil ondoren. Alegia, arma kimikoen, biologikoen eta nuklearren ez bestela, arma arinek urte luzetan irauten dutela, mantenu-kostu oso txikiak. Beraz, arma arin bat saldu eta birsaldu egin daiteke, biktima gehiago sortuz hainbat gatazka armatutan.

#### 4 Armen erabileraren ondorioak: 3 ondorio eta proposamen bat

**Helburua:** Estatuak gastu militar handiak edukitzeak sortutako ondorioez jabetzea.

**Deskripzioa:** hiru dokumentu erabiliko dira, estatuak dituzten gastu militar handien ondorioez jabetzeko. Ikasleei eskatu erantzun bat eman dezatela orrian dauden galderak irakurri ondoren, bosteko edo seiko taldeak osatuz.

**Orientabideak:** Galderei erantzun ondoren, emaitzak komentatu ahal dira, kontzeptuak argi daudela frogatzeko: gastu militarrek, armen ugaritzea eta bake-dibidendua. Armak erosteak mesfidantza-espiala sortzen du eta armak ugaritzea dakar (lurralde batean neurritz kanpoko armakopurua egotea) (lehen ondorioa). Bigarren ondorioa da gastu militarrek Estatuaren aurrekontutik ateratzen direla eta, beraz, beste premiei kentzen dietela ezinbestekoa duten dirua. Gastu militarra armak erosten erabilitako dirua ez ezik, beste zerbait ere bada: minak altxatzen erabilitako dirua, biktimek behar dituzten zaintzak, etab. Beraz, gerran amaitzen den gastu militar handiak edukitzeak gastu hori urtetan mantentzea dakar (hirugarren ondorioa). Behatutako hiru ondorioak komentatu ondoren, bakearen dibidenduari buruzko definizioa irakurriz amai daiteke, gastu militarrek urritzeko proposamen gisara.

---

## **5 Jarduera-proposamenak: Kontroletik kanpo**

**Helburua:** Gelan landutako edukiak modu sortzailean berrikustea.

**Deskripzioa:** Abestiaren melodia hartuta, hitzak berridatzi (edo zati bat), gelan landutako gaiak erabiliz. Ikasleek erabakiko dute gero zer zatik jasotzen dituen zuzenago gelan landutako gaiak, eta denen artean abesti bakar bat osatuko da.

**Orientabideak:** Hitzak idazten hasi aurretik, komeni da landutako gaiak eta ateratako ondorioak gogoraraztea.

IntermonOxfam-ek interneten daukan eskola arteko komunikazio-orrian parte hartzera animatzen zaituztegu. <http://www.intermonoxfam.org/conectandomundos> web orrian *Munduan elkarlotzen* proposamenaren berri izango duzue (BMHko 1. eta 2. zikloetarako egokitua)

Urtarrilaren 30n, urtero, Gandhiren heriotza gogoratzuz, DENIP-eguna ospatzen da, eta, dagoeneko egin ez baduzue, parte har ezazue egun horretako jardueretan esku hartzen duten beste hainbat ikastetxe eta institutuekin batera.

## BELDURRA DESARMATUZ

### ZER DA DENIP?

Ez-bortizkeriaren eta Bakearen aldeko Eskola-eguna.

### ... EGUNA

Ez-bortizkeriaren eta bakearen aldeko eguna egun bakar batean, urtarrilaren 30ean, ospatzen den arren –Gandhi hil zuten egunean–, urteko egun guztietako zeregina da.

### EZ-BORTIZKERIAREN ALDEKO...

Ez bortizkeria *aihmsa* itzultzeko saio bata da. Gandhik erabilitako Indiako hitz horrek "Bakearen eta Ez-bortizkeriaren aldeko ekimena" esan nahi du, gutxi gorabehera. Bi ideiala burbiltzen ditu: bortizkeriarik eza, eta bakearen aldeko borroka.

### ETA BAKEAREN ALDEKO...

Bakea, gerrarik gabeko egoera ez ezik, beste zerbaitek bada; hots, inorekiko diskriminaziorik ez izatea, justizian eta garapen-egoeran bizitzea.

### ESKOLA...

Gogoratzen al duzu zure Eskolak zer egin zuen DENIP ospatzeko? Zer egin dezakezue aurten armen arazoa dela eta?



# 1

# BORTIZKERIA HEDABIDEETAN

Gogora itzazu ikusi berri dituzun bideo-klip, film, etab. eta bete taula:

Izena:		
Hedabidea	<input type="checkbox"/> Bideo-jokoa <input type="checkbox"/> Bideo-klipa <input type="checkbox"/> Filma <input type="checkbox"/> Marrazki bizidunak <input type="checkbox"/> Telebistako albisteak <input type="checkbox"/> Prentsako albisteak	<input type="checkbox"/> Bideo-jokoa <input type="checkbox"/> Bideo-klipa <input type="checkbox"/> Filma <input type="checkbox"/> Marrazki bizidunak <input type="checkbox"/> Telebistako albisteak <input type="checkbox"/> Prentsako albisteak
Materialak	- - - - - - - - - - -	- - - - - - - - - - -
Zenbatek darabil bortizkeria?	Aztertu ditugun <input type="checkbox"/> materialetatik <input type="checkbox"/> bortizkeria darabilte. Hots % <input type="checkbox"/>	Aztertu ditugun <input type="checkbox"/> materialetatik <input type="checkbox"/> bortizkeria darabilte. Hots % <input type="checkbox"/>

Ondoren, egin ezazu gogoeta ondoko puntuei buruz:

Bizitza errealean, zenbat aldiz ikusi duzu norbait bortizkeriaren eraginez hiltzen?

Zure ustez, aurkitu duzun material bortitzaren ehunekoa handia ala txikia da?

Material bortitzen ehunekoa eta bizitza errealeko bortizkeriaren ehunekoa parekoak al dira?

Zure ustez, zergatik erabiltzen da neurri horretako bortizkeria hedabideetan?

## 2

## BELDURREZKO ESTATUAK



Antzeztu estatuen ariketa, eta bete ondoko taula:

Nola antzeztu dugu...	...gure taldea	...beste taldea
<p>Aldea al dago bien artean..?</p>		
<p>Gure taldea antzeztean, azaldu al ditugu beste taldearekiko desberdintasunak?</p>		
<p>Nola azaldu beste taldeari buruz daukagun pertzepzioa? Zergatik da horrelakoa?</p>		

Amaitzeko, egin gogoeta eta eztabaidatu ikaskideekin: zer azaldu nahi izan da orri honetan dagoen marrazkiaren bitartez?



**BIRSALMENTA:** 1986an, Brasilgo talde kriminal batek armak erosi zizkion Paraguayo trafikatzailer bati.

**BAIMENA:** 1962an, Gobernuko batzorde batek erabaki zuen Brasili armak ez saltzea, baina bai Paraguayri.

**ESPORTAZOIA:** 1989an, saltzailer batek Espainiatik iritsitako armak erosi zituen Paraguayn.

**EKOIZPENA:** 1961ean, Espainiako hainbat enpresak pistolak, errebolberrak eta munizioa fabrikatu zituen, esportatzeko.

**ERABILERA:** 1989ra bitartean hainbat aldiz erabili ziren Espainiatik iritsitako armak lapurretak egiteko Rio de Janeiron. 1994tik 1989ra Rion errekitatutako armen %27 estatu espainiarrekoak dira.

**BIRRERABILERA:** 1997an, arma horiek Sao Pauloko narkotrafikatzaile bati saldu zitzaizkion. Munduko populazioaren %2,8 brasildarra da, baina arma arinez hildakoen %11 dira brasildarrak.

Iturria: *Escola de Cultura de Pau*-k egindako lana, *Vivo Rio*-ko tosten batetik abiatuz.

**Ordenatu ondoren, seinalatu mapa honetan arma horiek egin duten ibilbidea.**

#### GLOSATEGIA

**EBko portaera-kodea:** Europar Batasuneko dokumentu bat da, non irizpide batzuk markatzen diren armak esportatu ahal izateko. Kodearen arabera, adibidez, ezin zaizkio armak esportatu gerran dagoen estatu bati, baldin eta giza eskubideak errespetatzen ez baditu, edo hiru aldeko merkataritza egiten ari bada.

**Hiru aldeko merkataritzako estatuak:** Portaera-kodearen arabera, armak inportatzen duen herria, gero gerran dagoen beste bati esportatzen dizkiona. Herri horien errua da, Portaera-kodearen arabera armak esportatu behar ez zaizkion herri bati armak iristea.



**Erantzun ondoko galderei, aurreko adibidean oinarrituz:**

Espainiak saltzen dituen armak zergatik ez doaz zuzenean Brasilerara?

Justifikagarria al da Portaera-kodea?

Zein da hiru aldeko merkataritza daukan estatuak? Zer lortzen du?

Noiz arte dira erabilgarriak arma horiek?

Beste arma batzuk baino luzarago erabiltzen al dira arma horiek?

# HIRU ONDORIO ETA PROPOSAMEN BAT

Irakurri eta arretaz begiratu ondoko dokumentuak:

Gobernuen gastu publikoa (aurrekontuen arabera, ehunekotan)			
Estatua	Hezkuntzan	Osasunean	Gastu militarretan
Islandia	5,4	7,4	0,0
Costa Rica	5,4	5,2	0,0
Japonia	3,6	5,7	0,9
Zeelanda Berria	7,3	6,3	1,0
Pakistan	2,7	0,7	4,5
Singapur	3,0	1,1	4,8
Turkia	2,2	3,3	4,9
Burundi	4,0	0,6	5,4

Iturria: *Escola de Cultura de Pau*-k ateratako datuak, *Giza Garapenari buruzko Txostena* (2003) PNUD-etik abiatuta.

### Gaurko eta biharko gastu handiak: Bosnia-Herzegovinako kasua.

Dayton-go Bake-Akordioak (1995), gerra amaitu ondoren Bosnia-Herzegovina berreraikitzeke alde garrantzitsuenak jasotzen ditu. Haien arabera, hiru armada onartu ziren: serbiar-bosniarra, bosniar-kroaziarra eta bosniarra; ondorioz, baina, gobernuak gastu ikaragarri handiak izan ditu: 2001eko aurrekontuen %9,5. Kontuan hartuz, ahalegin nagusienak herria berreraikitzen jarri behar direla, aipatutako gastua oso-oso handia da, jakina. Hori dela eta, Gobernuak erabaki zuen 2002an soldaduen kopurua %40 jaiste. Haien desmobilizazioak 45 milioi dolarreko gastua dakar. Soldaduen mobilizaziotik eta desmobilizaziotik eratorriko gastuei desarmearen gastuak gehitu behar zaizkie. 1988tik aurrera, hainbat kanpaina egin dira armak batu eta desegiteko, horrek dakarren gastuarekin, baina minak erretiratzeko eskatzen ditu ahaleginik berezienak. 2003an, Gobernuak 2010erako minak kentzeko kanpaina abiarazi zuen, minaz betetako 780 hektarea garbitzeko. Hori dena burutzeko, ordea, Gobernuak nazioarteko 40 erakunderen laguntza behar izan du, eta 380 milioi dolarreko aurrekontua.

Iturria: *Escola de Cultura de Pau*, SIPRI Yearbook 2003-ek, 321. or. eta Landmine Monitor Report, 2003-ek 115. or. emandako datuen arabera..

**Bake-dibidendua:** Gastu militarretik hartu eta premia sozialetan inbertitutako kantitatea. Berlingo harresia jausi zenean, armamentu-gastua murriztu egin zen edonon. Gastu hori baliatu zen Gobernuak eskatzeko kantitate hura premia sozialetan sartzeko. Irailaren 11 baino hilabete batzuk lehenagotik, berriro hazi da armetan sartzeko gastua.

**Zein ondorio atara ditzakezu taula aztertu ondoren?**

**Zein gastu militarri egin behar dio aurre Bosniako gobernuak gerra amaitu ondoren?**

**Testuko datuen arabera, gerra amaitu ondoren zenbat urtetan izango ditu Gobernuak gerrarekin zerikusia dituzten gastuak?**

**Aurreko dokumentuen arabera, zeintzuk dira gastu militarrek dituen hiru ondorio txar?**

**Zein proposamen egin ahal zaie Gobernuak gauza hauek ekiditeko?**

Abesti honek *Fuera de control* du izena, Beth-ek eta Kiko Veneno-k elkarrekin kantatzen dutena. Izen bereko CDan aurkitu dezakezu. Ea abestiaren zati batzuk berridazten dituzuen, taldeka.

*Fuera de control*

Hay en la calle una fiesta.  
Música que hace la orquesta.  
Oye que "rico" es el tambor, suma tu voz.  
Oye que "rico" es el tambor, suma tu voz.  
Hay mil voces que hablan de un cielo/lleño de sueños libres,/hoy, hoy...  
Voces que cantarán más fuerte/que el arma del guerrero,/bang, bang...  
Hay mil voces que piensan un mundo/que no tiene veneno,/ ya, ya...  
Voces que cantarán tan alto/que salten los muros,/paz, paz...  
Fuera de control estamos/y lo queremos cantar  
Ven, suma tu voz,/por la vida y la gente  
Fuera de control estamos/y no queremos callar  
Ven, suma tu voz,/por la vida y su gente  
Y es que merece la pena  
"marchar por la vida ajena"  
y decir con nuestra voz  
que estamos fuera de control  
Lo puedo cantar más alto  
pero no decir tan claro  
que estamos fuera de control  
y que se escuche nuestra voz  
Y en la calle suena un ritmo  
que te invita a ser tú mismo  
para que alces la voz  
te encuentras fuera de control  
Y es que no entiendo de guerras  
ni de armas, ni fronteras  
estamos fuera de control  
así que escucha nuestra voz  
Hay mil voces que hablan de un cielo/lleño de sueños libres,/hoy, hoy...  
Voces que cantarán más fuerte/que el arma del guerrero,/bang, bang...  
Fuera de control estamos/y lo queremos cantar  
Ven, suma tu voz,/por la vida y la gente  
Fuera de control estamos/y no queremos callar  
Ven, suma tu voz,/por la vida y su gente  
Fuera de control.../y lo queremos cantar  
suma tu voz,/por la vida y la gente  
Fuera de control/y no queremos callar  
suma tu voz,/por la vida y su gente  
Fuera de control  
suma tu voz  
Fuera de control  
suma tu voz.

